

# Sendagaiak zentzuz erabiltzeko gomendioak

10. zenbakia, 2024ko urtarrila

# ANTIBIOTIKOEN ERABILERA ARDURATSUA: NOIZ EZ PRESKRIBATU?

XX. mendearren erdialdean lehenengo antibiotikoa aurkitzeak medikuntza modernoaren norabidea aldatu zuen, bakterio-infekzio gehienak prebenitu eta tratatzeko aukera emanet. Ordutik, medikamentu antimikrobianoei esker, kirurgia, transplanteak, haur goiztiarren arreta edo minbiziaren tratamendua bezalako arloetan ere aurrera egin ahal izan da<sup>1</sup>.


Europako Batzordeak adierazi duenez, gaur egun antimikrobianekiko erresistentzia da gizateriak osasun publikoan dituen 3 mehatxu nagusietako bat<sup>2</sup>. **Antibiotikoen eragina babesteko, “One Health” (osasun bakarra) ikuspegitik lan egin behar da:** giza osasunean eta eremu zabalagoetan jardun, hala nola animalien- eta ingurumen-osasunean.

Bakterio multieresistenteek 35.000 heriotza eragiten dituzte urtean Europan, eta 1.500 milioi euro inguruko osasun-gastu gehigarria eragiten dute. OMEren kalkuluen arabera, neurriak hartu ezean, 2050rako antimikrobianekiko erresistenteak diren infekzioak munduko heriotza-kausa nagusia bihur daitezke eta urtean 10 milioi heriotza eragin. Horrek minbiziak edo diabetesak baino hilkortasun handiagoa ekarriko luke<sup>1</sup>.

**Antibiotikoak gehiegi erabiltzea da antimikrobianoen aurkako erresistentziaren arrazoi nagusietako bat, gutxitzea denon erantzukizuna da.**

Testuinguru horretan, 2023ko ekainean, EBko Kontseiluak antimikrobianekiko erresistentziari aurre egiteko ekintzak areagotzea gomendatu du. **Proposatutako neurrien artean dago 2030rako gizakietan antibiotikoen kontsumoa % 20 murriztea, 2019arekin alderatuta (Espainiako Estatuari % 27 murriztea dagokio)**<sup>2</sup>.

Euskadin, 2022an, antibiotikoen kontsumoa komunitate-eremuan 17,60 DHD izan zen (eguneko dosi zehaztuak, 1.000 biztanleko eta eguneko); 2019an baino 2,14 DHD gutxiago<sup>3</sup>. Esteka hauetan kontsultatu daitezke [autonomia-erkidegoen kontsumoaren arteko alderaketa](#) eta [antimikrobianoen kontsumoa Europako hainbat herrialdetan](#)<sup>4</sup>.



Europako helburuak lortzeko, Antibiotikoen erresistentziaren Plan Nazionalak ([PRAN](#)), oro har, honakoa gomendatzen du:

## *Antibiotikorik EZ preskrivatu<sup>5</sup>:*

- **Bakterianoa ez den infekzioa** dagoela uste bada.
- **Faringoamigdalitis kasuetan**, salbu eta etiologia estreptokozikoaren susmo handia badago eta/edo *S. pyogenes*-en antigenoa detektatzeko proba azkarraren emaitza positiboa bada.
- **Sinusitis akutuan**, salbu eta zorne-jarioa zein aurpegi-masailetako edo hortzetaiko mina 7 egunez baino gehiagoz irauten badu, edo hasierako hobekuntza klinikoaren ondoren sintomek okerrera egin badute.
- **Konplikatua ez den kanpoko otitis akutuan** ez agindu ahoko antibiotikorik.
- Ustez jatorri biralekoak diren **konjuntibitisetan**.
- **Beheko arnasbideko infekzioetan** komorbilitaterik gabeko heldu immunogaituetan, baldin eta klinikoki pneumoniarik susmatzen ez bada.
- **Sintomariak gabeko bakteriuetan:** haurdun ez dauden emakume premenopausikoak, diabetesa duten pertsonak, adinekoak (instituzionalizatuak edo ez), bizkarrezur-muineko lesioa dutenak edo gernu-kateterrak dituztenak.
- **Maskuriko zunda kronikoa duten pazienteetan ez egin errutinazko profilaxirik** zunda aldatzean. Prozeduran zehar traumatismo-aurrekariak edo aldaketaren ondorengo infekzio sintomatikoa izan dituzten pazienteetan kontuan har daiteke; baita immunodeprimituak edo oinarrizko gaixotasun larria duten arrisku-pazienteetan ere.

## BIBLIOGRAFIA

1. The Review on Antimicrobial Resistance. [Tackling drug-resistant infections globally: Final report and recommendations](#). Government of the United Kingdom; 2016.
2. COUNCIL RECOMMENDATION on stepping up EU actions to combat antimicrobial resistance in a One Health approach. Official Journal of the European Union. (2023/C 220/01). [Consulta: noviembre 2023].
3. Mapas de consumo en salud humana. [internet]. Plan Nacional Resistencia Antibióticos. [Consulta: enero 2024].
4. Latest surveillance data on antimicrobial consumption. European Centre for Disease Prevention and Control (ECDC). [Consulta: noviembre 2023].
5. Recomendaciones sobre prescripción antimicrobiana en Atención Primaria (adultos). [internet]. Madrid: AEMPS, Plan Nacional Resistencia Antibióticos; 2017.

Irudia: Freepik.